



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Concerto Italiano talde entzutetsuak emanaldia eskainiko du ostegunean Arriaga Antzokian, Rinaldo Alessandriniaren zuzendaritzapean

- Ahots eta instrumentu talde italiarrak Monteverdiri eskainitako bere musika proiektu zirrargarria eskainiko du Bilbon ostegun honetan, urtarrilaren 24an, 19:30ean.
- Bere zuzendaria, Rinaldo Alessandrini, nazioartean aitortzen den klabezin-jotzaile, organista eta piano-jole bat da; berarekin batera ariko dira Carlotta Colombo eta Sonia Tedla Chebreab sopranoak eta Ugo Di Giovanni teorbista.

**Bilbo, 2024ko urtarrilaren 23a.- Concerto Italiano** ahots- eta instrumentu-formazio ezaguna, ia lau hamarkada daramatzana antzinako musika bikaintasunez interpretatzen, Bilbora dator ostegunean Monteverdiri eskainitako proiektu zirrargarria eskaintzera. **Rinaldo Alessandrini** fundatzaile eta zuzendaria buru duela, Monteverdiren eta Italiako beste musikagile batzuen obrak interpretatuko ditu taldeak. Besteak beste, Monteverdiren *Madrigalen* 7. Liburuko duetoak, *Scherzi Musical*ko ariak eta *L'incoronazione di Poppea* obraren zenbait eszena.

Azpitarratzekoa da Alessandrini beraren parte hartzea kontzertuan, klabezina jotzen eta ikuskizuna musikalki zuzenduz. **Carlotta Colombo** eta **Sonia Tedla Chebreab** sopranoen bakarkako ahotsak ere izango dira, eta **Ugo Di Giovanni**ren teorboarekin egindako ekarpenak ere merezi du aipamena.

Rinaldo Alessandrini klabezinista, organista eta pianista da, nazioartean ezaguna, eta Concerto Italianoren buruan berrogei urte baino gehiagoko ibilbide arrakastatsua egin izateaz gain antzinako musika interpretatzen, bakarlari gisa ere jarduten da mundu osoko jaialdietan. Concerto Italiano taldea 1984an sortu zen, Italian, antzinako musikaren berpiztearekin batera. Monteverdi, Bach eta Vivaldi izan ziren taldearen oinarri nagusiak antzinako musikaren hizkuntza berritzeko orduan, eta une hartan guztiz berriak ziren alderdi estetikoak eta erretorikoak aurkitu zituzten. Bere ibilbidean, Concerto Italianoren grabazioak erreferentziazko bertsioak izan dira, eta hala dira oraindik ere. Taldea mundu osoko antzoki, auditorio eta jaialdietan aritu da.

Concerto Italianok Monteverdi trilogia sortu zuen Milango Teatro alla Scalan eta Parisko Opéra Nationalen, Bob Wilsonen zuzenduta, 2009tik 2016ra bitartean. Sari garrantzitsuak jaso ditu, hala nola lau Gramophone sari (1994, 1998, 2002 eta 2004), Alemaniako kritika diskografikoaren hiru sari, Cini saria, bost sari Cannesko Midem-en, bi Disque de l'Anée (1998 eta 2005) eta Urteko Grabazioaren saria (Amadeus, 1998). 2002an, Abbiati saria jaso zuen bere ibilbideagatik.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 18 eta 36 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)